



Kanalen zutabe nagusia **web-orrialdea** da. Bertan, gure bezeroak zuzenean zerbitzua kontratatzeko aukera izango dute. Hala ere, emailaren, telefono-deiaren bidez web-orrialdearen kontratazio formularioaren prozedura batzuk ere egiteko ahal bidea izango dute. Lau atal izango ditu:

- Sarrera: Gure zerbitzua aurkeztuko dugu Internet gure web-orrialdea klikatzen duten bakoitzean. Bertan, zuzenean azalduko diogu fisikoki zertan datzan haien esperientzia eta zer-nolako helburuarekin (Baliozko proposamena) egingo dituzten ekintzak.
- Nola kontratatu zerbitzu hau?: Hemen formulario bat aurkituko dute, haien eskaera bidaltzeko. Honako datu-pertsonalak sartu beharko dute: Izen-abizenak, telefono-zenbakia, NAN-a eab. Online edo zuzenean ordaintzeko aukera izango dute bezeroek, eskudiruaren edo kreditu-txartelaren bitartez edo kontu-korrente batera transakzioak eginez. Haurren, hirurogei urte baino gehiago duten adinekoen, familia ugarien, ugari berezien, ezgaituen prezioak baxuagoak izango dira prezio estandarrak baino.
- Esperientzia zuzenean: Gune honetan gure Youtube-ko kanalaren bideo batzuk esleituta agertuko dira, non erabiltzaileek esperientziaren grabaketa eta nolakoa den ikusiko duten.
- Nor gara?: Gune honetan ideia honen sortzaileak aurkeztuko gara paragrafo txiki baten bidez. Horretaz gain, gurekin elkarlanean dabilzan enpresen lista agertuko da, baita gure sare sozialetara zuzenean sartzeko linkak ere.

Bezeroek gurekin kontaktuan jarri ahal izango dute kanal hauen bitartez:


Telefono-zenbakia: 688723456.



Email norabidea: [www.ondarrutarerara.eus](http://www.ondarrutarerara.eus)



Web orrialdea: [www.egunondarrutarbat.com](http://www.egunondarrutarbat.com)



Sare sozialak: Twitter, Instagram, Facebook, Youtube, Whatsapp